



seiurte

SeiUrte taldea **Berrizen** (Bizkaia) abiatu zen 1997an, **Julen** eta **Jokin** alde aurretik beste talde batzuetan ibilitakoak ziren (**Izurrai**, **Martxoak 31**), eta proiektu horiek amaitzean, eta kon-turaturik sei urte pasatu zirela musikan sartu zirela, izena prest zuten. 1998an "Orain..." izena zuen lehen maketa grabatu zuten. 2000n **Iker** lehen bateriaren ordez **Julen** "**Hissopus**" sartu zen. CDaren garaian, bigarren maketa ateratzea erabakiko zuten: "Non". 2002an beste gitarra bat sartu beharra ikusi zuten, eta **Iñaki** (Ene Bada, Zer) gitarrojalea-
rangan pentsatu zuten. Era horretan, laukote izatera pasatu ziren. 2002an Euskadi Gaztea 12. Maketa Lehiaketa irabazi zuten. Diskoak hortik aurrera etorriko ziren, lehen biak Metak diskoetxearekin, azken biak eurek sortutako Estoldetan diskoetxearekin. "Lau", bosgarrena, Baga-Bigarekin. Zer dute bada zerbakiak?

SeiUrte taldeak bere bosgarren disko luzeari "Lau" deitu dio. SeiUrte taldeak zerbaki nahasmenera eraman nahi gaituela ematen du. Zerbaki zositako disko berria. SeiUrte, bosgarren diskoa, lau izenburua. Beste paradoxa andana egon daiteke Euskal Herriko musikan; dena den, SeiUrte taldeak zerbakiekin musikalitatea lortu du. SeiUrte taldeak Berrizko Estoldetan estudioan egin du grabazioa. **Estoldetan** estudioa taldeak berak kudeatzen du, eta 2009ko urtarrila, otsaila eta martxoan egin dituzte grabaketak. Masterrizazioa, aldiz, **Mastering Mansion** estudioan (Madril) egin dute. **Rafa Acevesek** (Mamba Beat, Txuma Murugarren) pianoarekin lagundu dio SeiUrte taldeari. Koruetan **Monica Arevalo**, **Aitor Agirre**, **Sean Martinez** eta **Diana Labrador** ageri dira bi abesitatan: "Superlenda" eta "Hey Dj".

SeiUrte taldearen bosgarren diskoa osatzen duten kantuak entzulearengana erraz iristen diren horietakoak dira, entzuterrezak, ulerterrazak. Publiko handi batek segituan onar ditzakeen kantuz beteta dago. Hori txarra da? Hori ona da? Kantuak baino ez dira, eta kantuen nortasuna oso garbi adierazten dute. Rock and rolla bere egoera poperoenean inolako energiarik galdu gabe. Kantuetan pasarte desberdinak daude, baina beti melodiaren aldera lehertzen dira. SeiUrte taldearen kantuak kementsuak dira, hunkigarriak eta beroak, bihotz berokoak. SeiUrte taldeak poparen alderik indartsuena lantzen du, horregatik dira power-pop zaleak. Indarra eta kemena batzen dira poparen emozioarekin. Esan den guztia argitzeko, badago beste hitz-joko bat: brit-pop. SeiUrte taldearen diskoa sotila eta fina da. Sekulako diskoa.

SeiUrte taldeak beti izan du "british-pop" eta power popa rockaren ikuspegitik jorrazteko gogoia.

Bai, pop-a beti izan dugu oinarri, baina gorputz "rockeroa" daukagu eta ezin dezakegu indarrak ez duen musikarik egin. Zentzu horretan beti izan dugu lotura gehiago musika britaniarrarekin beste edozeinekin baino.

Zerbakiek liluratu dute SeiUrte? Laua ez den musikari "Lau" izenburua jarri diozue.

Zerbakiek bizitza antolatzen dute eta baita gure ibilbidea ere. Duela hiru urte "Jauzia" eman genuenetik taldeak bere lekua lortu du, eta horrela, lasitasunez, gure laugarren diskoa prestatzen izan gara. Hori izan da disko honetan izan dugun sentsazioa.

Hitzek SeiUrte taldearen nortasun gardena agertzen dute, alaitasuna eta jarrera bat eginik.

Bai, asko lantzen ditugu hitzak eta abesti bakoitzean zeozer kontatzea gustatzen zaigu. Mila modutan, baina bakoitza bere istorioarekin. Askotan esanahi garbirik ez duten hitzak hobeak direla uste izaten da, baina gu ez gaude ados, eta horretan saiatzen gara.

Bapatean (Metak, 2003)

Ekiozu (Metak, 2004)

Jauzia (Estoldetan, 2006)

Plateruenean zuzenean (Estoldetan, 2007)

Jokin: gitarra eta ahotsa

Julen: baxua

Ekain: bateria

Iñaki: gitarra

ritxi aizpuru (2009ko maiatzaren 22a)